

Udalak anbulatorio berria Osakidetzari doan eskainiko dio

□ Udaltzarrak atzo ospatutako ohiz kanpoko bilkuran, Loidi-Barrengo anbulatorioa Osakidetzari, 30 urtez, doan ematea erabaki zuen

□ Lasarte-Oriako Udaletxeko langileek atzerapenak kobratuko dituzte eta KPIaren pareko igoera izango dute hurrengo bi urteetan

Lasarte-Oriako Udaltzarrak ohiz kanpoko bilkura egingo zuen atzo 10:00etatik aurrera jendaurreko ekitaldian. Egunezko gai-zerrendan hiru kontu izan zituzten hizpide: 2008ko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ematea; Loidi-Barrengo Anbulatorioa dagoeneko Euskadiko Administrazioari doan ematea eta azkenik, 2008 eta 2009. urtetarako Lasarte-Oriako Udaleko langileen ordainsarien igoeraren proposamena.

Atzo Lasarte-Oriako Udalean ospatu zen ohiz kanpoko bilkura 2008ko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ematea erabaki zuten eta Loidi-Barrengo Anbulatorioa Osakidetzari, doan ematea erabaki zuten. Bi gai hauek atzoko bilkuran aho batez onartu zituzten zinegotziek.

Anbulatorioari dagokionez, udaltzarrak hartutako erabakiaren ondorioz, Udalak Osakidetzari ematen dio anbulatorio berriko eraikina lehenengo bi solairuak kudeatzeko eta erabiltzeko eskumena, hurrengo 30 urteetarako. Beraz, Osakidetzak eta Udalak hitzarmena sinatu ondoren, anbulatorio zaharretik berrira lekualdaketa egitea besterik ez da geratzen. Iñaki Mugikak, alkate ordea eta Hirigintza



Udal ordezkariak Loidi-Barrengo anbulategi berriak urte amaierarako zerbitzuak eskainiko dituela espero dute.

saileko lehendakariak jakinarazi duenez, urte amaierarako anbulatorio berria martxan egotea espero dute. Mugikak Noticias de Gipuzkoa egunkariari egindako deklarazioetan adierazi duenez, Udalaren asmoa eraikina Osakidetzari 75 urteetarako uztea zen, urte guzti horietan eraikin hori osasun zerbitzuetarako erabiliko dela bermatzeko. Baina, Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailak ez du onartzen 30 urte baino gehiagotako lagapenik.

Liskarra langileen ordainsarien inguruan

Ohiz kanpoko bilkura giro lasaian igaro zen, gai-zerrendako hirugarren puntua iritsi zen arte. Puntu hau aurrera ateratu da PSE (8) eta PP (1) botoekin. Onartu duten diktamenaren arabera, Udaleko langileek atzerapenak kobratuko dituzte, hurrengo bi urteetan Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) pareko gehikuntza izango dute soldatan eta Udaleko aldi bateko langileen eta organo korporatiboaren soldatak eta

diru-esleipenak izoztuko dituzte.

Ricardo Ortegak, Ezker Batua-Berdeko zinegotziak, oposizioko zinegotzien babesarekin aurkeztu zuen emendakina atzera bota zuten PSE (8) eta PP(1) alde-diek. Emendakin honek Udaltzateko Negoziazio Mahaiak erabakitakoa onartzea eskatzen du. Besteak beste, langileen soldatak hurrengo hiru urteetan KPIa gehi %1a igotzea eta langileen lan baldintzen hobekuntza. •



Hydrogenoa eta erregai-pilei buruz teknikak eta aplikazioak azaldu dizkigu Oscar Miguelek/4

GIZARTEA ■ 3

Odol emaileak Tolosan bildu ziren sariak banatzeko

ERREPORTAJEA ■ 5

San Markosek errezeta-liburuxka banatu ditu janaria alperrik ez galtzeko aholkuekin

KIROLA ■ 6

Udalak eta herriko kirol taldeek hitzarmenak sinatu dituzte

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Zorion-agurrak



Beñat

Zorionak eta 12 muxu potolo Lide, Jone eta gurasoen partetik



Manoli

Zorionak, zure gixaro goxua jenez urte askotarako zoriona izan dezazula! Jon, Ixiar eta Xabier



Xabier Bardaji eta Maritxu Zuriarrain

Zorionak zuen urrezko ezteietan! Ospakizuna azaroaren 8an 13:00etan Oriako Kar-mengo Amaren kaperan izango da. Ondo pasa eguna!



Nahia

Zorionak zure bostgarren urtebetzean. 5 muxu handi famili guztiaren partetik!



Aurelio eta Unax

Zorionak bikote! Muxu pottolo bat familia osoaren partetik.



Antxon

Zorionak amona familia osoaren partetik. Hori bai sasoia!



Aitor

Zorionak familia guztia- ren partetik eta 8 muxu potolo Eiderren partetik.

Jaiotzak

AlaMariana Greggio Alvarez , urriaren 24an.
Mikel Tejero Molchaniuk , urriaren 30an.
Nahuel Amaru Trombotti Juarez , azaroaren 1ean.
Eneko Pérez Sáez de Maturana , azaroaren 1ean.

Guardiak

Ostrala, 7
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Larunbata, 8
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
Igandea, 9
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
Astelehena, 10
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567
Asteartea, 11
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
Asteazkena, 12
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
Osteguna, 13
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltekinak 943 362442
Ertzaintza 943 288888
SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia 943376182
Kulturetxea 943376181
Bakezko epaitegia . 943371629
Zerbitzu Sozialak . 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.
- Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Plaza handia da, furgoneta bat sartzeko modukoa. Tel.: 943 376 115.
- Alokairuan pisu bat Lasarte-Orian, zentroan. Berria, guztiz amueblatua. Abala eskatuko da. Tel.: 650 016 900, Idoia.

- 18 eta 22 metro karratuetako 2 trasteleku saltzen ditut Lasarte-Orian (Sasoeta auzoan). Bakoitzaren prezioa 1.000.000 pta. Tel.: 629 417815.

- PSP bat salgai. Urte bete du eta oso gutxi erabilia, 125 euro. Tel.: 653 712373

- Lizarrako kanpenean Movil Home bat salgai. 11x4 metrokoa, portxea eta partzela. Izena berria eta hobekuntzak. Kanpina urte guztian irekia dago. 87.300 euro. 943371038/658089380

Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da arratsaldeetan umeak zaindu, plantxa egin edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 647765854

Salerosketak

- Garaje itxia erosiko nuke edozein lekutan, gehienez 4.000.000pta ordainduko nituzke. Tel.: 629 417815.

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4 • www.txintxarri.info



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Sorospen Ikastaroa Donostian DYArek eskutik

2008ko azaroaren 10etik 28ra arte, DYA Gipuzkoak antolatuta Sorospen ikastaroa emango da. Ikastaroa astelheenetik ostiralera izango da, arratsaldeko 19:30etik 21:30era, Donostiako Ategorrieta Galtzadan aurkitzen den San Ignacio Institutuan, Plazak mugatuak dira. Ikastaroak 2 kreditu emango ditu EHUrako. Izena emateko epea azaroaren 5 arte luzatzen da. Informazio gehiago 943 464622 telefono zenbakian edo <http://www.dyagipuzkoa.com> web orrian.

GFAko errenta kanpainen laguntzeko erdi mailako teknika- lan-poltsa

Ingeniari Teknikoa, Unibertsitateko Diplomatu edo baliokidea izan behar da Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, errenta-kanpainen laguntzeko Erdi-Mailako Teknikari- lan-poltsa osatzeko aukeraketa-prozesuan sartzeko. Horretarako azken eguna azaroaren 25a da. Informazio gehiago

GFAn, Gipuzkoa plaza, z/g, Donostia; tel.: 943 112111; web or.: <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/ga/2008/11/05/e0812149.htm>.

Erdi mailako teknika- lan-poltsa Pasaiaiko udalerako

Zuzenbidea, Ekonomia-zientziak edo Enpresa-zientziak lizentziaturatan hiru urte gaundituta izatea edo diplomaduna izatea, 3. hizkuntz-eskakizuna dira bete behar direko baldintzak Pasaiaiko Udalerako Erdi-Mailako teknika-ri hautatzea bitarteko funtzionario izendatu ahal izateko lan-poltsan sartzeko. Horretarako azken eguna azaroaren 20a da. Informazio gehiago Pasaiaiko Udalen: San Juan kalea, 118, tel.: 943 344034; web orria berriz, <http://www.pasaia.net>.

Mekanizatu-Tailerreko operadore ikastaroa Andoainean

Derrigorrezko bigarren hezkuntza egina izan behar da ikastaroa egiteko (Araututako titulua: DBH edo OHO). Ikastaroaren iraupena 725 ordukoa da honako egutegiarekin: 2008-11-17tik

2009-06-30era arte, eta honako ordutegiarekin, 15:00etatik 20:30era. Eskainiko den edukia honakoa: Helburua: fabrikazio mekanikoko makina konbentzionalan nahiz CNC modukoetan lanean aritzeko langileak prestatzea. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da. Informazio gehiago La Salle Berrozpe Ikastetxean, La Salle hiribidea, 5, 20140 Andoain. Tel.: 943 590557 eta posta elektronikoa lescudero@lasalleberrozpe.com.

Hip-Hop tailerra Erreterian

Banda Bat Elkarte Kulturalak antolatuta, azaroaren 12 eta 13an, Erreterian Txintxarri hip-hop tailerra egingo da dohai-rik 18:00etatik 19:30etara. Azaroaren 14an Laket Taberna erakusketara ere egingo da arratsaldeko 19:00etan. Hiru dantza mota egingo dira: break dance, rima eta graffiti. Izena emateko azken eguna azaroaren 12a izango da. Informazio gehiago 637 222357 eta 617 819981 telefono zenbakietan; info@bandabat.org helbidean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Odol emaileen ospakizuna Tolosan

Lasarte-Oria gehien dituen herrietakoa bada ere emaileak behar dira

TXINTXARRI

Zonalde mailako Odol Emaileek bazkaria egin zuten joan den urriaren 26ean Tolosan. 25, 40 edo 50 eta 75 aldiz odola eman dutenei saria emateko elkartu ziren Izaskun auzoan. Aia, Andoain, Asteasu, Anoeta, Berastegi, Hernani, Ibarra, Lasarte-Oria, Tolosa, Orio, Urnieta, Villabona eta Usurbil herriak hartzen ditu bere gain Tolosaldeko Odol Emaileen Elkarteak eta horietatik odol emate gehien dauden herriak Hernani eta Lasarte-Oria dira. Herrikoak, guztira, 20 pertsona bildu ziren, horien artean hamabik 25 aldiz odola emateagatik eta zortzik 40 edo 50 aldiz emateagatik jaso zuten saria. Ez dira gutxi baina hala ere gehiago behar direla esan dute elkartetik.

25. aldiz odola eman duten pertsonak 75 izan dira guztira aurrean Tolosaldea mailan eta 40 edo 50. aldiz eman dutenak 40. Emakumezkoek 40 odol emategara iristean jasotzen dute saria eta gizonzkoek 50 egiten dituztenean. Gehien egin dutenak, 75 aldiz alegia, 5 izan dira guztira, Hernani, Andoain eta Tolosakoak.

Odol emaileak saritu dituzten arren oraindik emaile gehiago behar dira. Nahiz



Herriko odol emaileak gainontzeko herrikoekin bildu ziren Tolosan egindako bazkarian

eta aurrera egiten duten, larri dabilta, istripu handiren bat gertatuz gero ez litzateke odol nahikorik egongo egoera horri aurre egiteko. Momentuz oreka bat mantentzen da eta beharrezkoa dena lortzen dute, baina egoera berezi bat suertatuz gero ez da nahikoa izango orain dagoen kopuruarekin, estutasunen bat egon daiteke.

Horregatik jendea animatu nahi dute odol emaile izatera beharra badagoelako eta egoera bereziatarako prest egon behar delako.

Estatistika

Herrian, odola lehenengoz eman dutenen kopurua igo da aurreko urtekoekin alderatuta. Guztira 11 pertsona gehiagok eman dute odola iaz baino eta

gorakada hori abuztuan nabaritu da gehien bat.

Hala ere, hasi berrien gorakada hori ez da kopuru orokorrean somatu, lasarte-riatarren odol emateak guztira begiratuta kopuruan mantendu egin dira, 629 donazio izan dira aurtengo urtariletik urria arte, lehenengo urteko kopuru bera hain zuzen ere.

DONOSTIAKO BIGARREN INGURUBIDEKO LANAK

Leherketen eguna aldatu da

Donostiako Bigarren Inguru-bidearen lanak direla eta, zenbait leherketa egingo dira egun hauetan zehar. Lehenengoa datorren azaroaren 6an izango zela iragarri bagenuen ere, azaroaren 8an izango da. N-I eta Tere-sategi baserriaren artean izango da gutxi gorabehera 15:30 eta 17:00ak artean. Herritarrek jakinaren gainean jarri nahi ditu Udalak ustekabeen ez harrapatze arren.

DIRUA BILTZEKO AFARI SOLIDARIOA

Haitirako laguntza

Bihar Lasarte-Oriako bi parrokiatako Misio Taldeek antolatuta afari solidarioa ospatuko da eta bildutako dirua Haitira bideratuko da.

Fay, Gustav, Hanna eta Ike izeneko hurakanek herrialdea txikitu dute eta han dauden Merzedaria ahizpen bitartez proiektua martxan jarri da. Beasain, Zumarraga eta Ordizian jaki eta eraikuntzarako materialaren bilketa egin dute eta gure herrian afari solidarioaren bitartez, kontainerraren kostuak ordaindu nahi dira. Afarian Haitin egondako mediku bat egongo da bere esperientzia kontatzen.

Hasi da Irudiekin munduan barrena urteroko diaporamen zikloa

Mikel Zinkunegi herritarrek eman zion asteazkenean hasiera diaporamen zikloari. Palestinarren errealitatearen berri Mikelek berak eta Fernando Garatek eman zuten. Komite Internazionalistetako kideak dira biak eta udan brigadista moduan egon dira bertan. Palestinan izandako bizipenak eta gora beherak kontatu zituzten ordu bete inguru iraun zuen diaporaman. Eguraldi kaxkarra izan arren, jende ugari bildu zen lehenengo saioa ikusi eta entzuteratzen.

Gogoratu diaporamak asteazkenean izango direla iluntzeko 21:00etan Jalgin. Datorren astean Oinatz taldeak udaberriari Orkatza mendira eginiko irteera kontatuko digute.



Maratoiko argazkiak ikusgai Jalgin



Euskararen VII. Maratoiko argazkiak ikusgai jarri ditu Ttakin Kultur Elkarteak Jalgi kafe-antzekiko leiho batean. Argazkien bilduma hori maratoiko berrogei orduen laburpen bat da. Ia laurhun argazki ditu esandako bildumak. Norbaitek argazkien laburpen hori eskuratzeko interesa izango badu, Ttakuneko bulegotik pasa dadila.

“Egun, hidrogenoaren %98a gas naturaletik lortzen da”

Itziar CARRASCO

U surbilgo Lanbide Eskolan energia berriztagarrien inguruko X. Jardunaldi tekniko egin zuten aurreko ostegunean, urriaren 30ean. Jardunaldi honetan "Hidrogenoa eta erregai-pilak" izan zuten mintzagai. Bertan parte hartu zuten sektore honetako ikertzaile eta adituek hidrogenoaren teknikak eta aplikazioak azaldu zituzten. Adituen artean Oscar Miguel, Cidetec enpresako Energia Saileko zuzendaria, egon zen eta berarekin hitz egin dugu hidrogenoaren inguruan zerbait gehiago jakiteko asmoz.

Nola lortzen da hidrogenoa?

Hidrogenoa ez da energia iturri bat, beste zerbaitetik sortu behar da. Egun, erabiltzen den hidrogenoaren %98a gas naturaletik ateratzen da. Baina, gas naturala, petrolio bezala, momentu batean edo bestean eskasa eta garestia izango da.

Beraz, alternatiba energetikoak erabili beharko dira.

Aukera desberdinak daude. Baikorrenek uste dute energia berriztagarriak izango direla gaitz guztien soluzioa. Greenpeace kalkulatu du Europak duen energia berriztagarrien potentziala, energia eskaera baino askoz handiagoa izango dela. Bestetik, tradizionalek diote, etorkizunean energia nuklearra soilik izango dela gai eskaerari aurre egiteko. Hau da, ez dela beste energiarik egongo beharrik asetzeko gai izango denik, eta are gutxiago berriztagarriarik.

Zein da zure iritzia honekiko?

Hauk muturreko bi iritzi eta posizioak dira. Egun, erregai fosilak ditugu, batez ere, gasolina eta petrolio. Energia hauek egunen batean oso garestiak izango dira eta autoak mugitu ahal izateko alternatibak beharko ditugu. Egun horretan, energia berriztagarriak edo nuklearra izango ditugu, baina hauetatik lortutako elektrizitate hori nolabait metatu egin beharko da, erabilpen baterako edo besterako. Egun, energia berriztagarrietatik lortzen dugun elektrizitatea metatzeko ez dago soluzio errazik. Beraz, hidrogenoa energia berriztagarrien irregulartasunak gestionatzeko soluzio bat izan daiteke. Uste dut, etorki-



Oscar Miguelek uste du etorkizunean, energia desberdinen konbinazioa izango dela ardatza.

zunean, energia desberdinen konbinazioa izango dela ardatza: energia berriztagarriak, ez berriztagarriak, ikatza...

Zein litzateke hidrogenoa lortzeko modurik jasagarriena?

Hidrogenoa elektrizitate berriztagarrietatik lortu beharko genuke. Energia berriztagarrietatik lortutako elektrizitatea uraren hidrolisia egiteko erabiliko genuke, hau da, oxigenoa eta hidrogenoa banatzeko. Esaten da hidrogenoa bektore energetikoa dela. Azken finean, hidrogenoak energia elektriko mantentzen du, leku batera garraiatzen da eta berriz ere energia hori erabili daiteke. Adibidez, kotxe elektrikoan energia berriztagarritik lortutako hidrogenoa erabiltzen badugu, erregai-pila batean metatzen da. Beraz, hidrogenoa energiaren eroalea da, baterien alternatiba bat da.

Zeintzuk dira hidrogenoaren abantailak eta eragozpenak ingurumenarekiko?

Hidrogenoa lortzeko elektrizitate berriztagarriak erabiliko bagenitu, ez genuke

kutsadurarik sortuko. Prozesu garbia litzateke. Baina, iturri ez berriztagarrietatik lortutako hidrogenoa erabiltzen badugu, gas naturaletik esaterako, hidrogeno horren erabilera nahiko eraginkorra izango da eta eguratserako isuriak nahiko baxuak izango dira. Isuriaren intentsitatea gutxitu egiten du. Beraz, energi iturri bat edo beste erabilita ere, hidrogenoa nahiko eraginkorra da.

Egun hidrogenoa lortzeko zergatik erabiltzen da gas naturala eta ez iturri berriztagarriak?

Oso erraza da, gas naturala askoz ere merkeagoa da. Hidrogenoa lortzeko elektrizitate asko behar da. Beraz, prozesua oso garestia da.

Automozioko enpresek hidrogenoaren aldeko apustu egiten ari dira.

Gero eta petrolio gutxiago dago, gero eta garestiagoa da eta gainera kutsatzen du. Horregatik, autoen konpainiek alternatibak bilatzen ari dira. Eta alternatiben artean, hidrogenoak gorakada nabar-

mena izan du. Bi aukera daude, batetik, errekontzako motorra hidrogenoarekin erabiltzeko egokitzea, gasezko kotxeak bezala eta bestetik, eta aukera egokiena nire ustez, hidrogenoa erregai-pila duen kotxe elektriko batean erabiltzea da. Egia da ere, teknologia hau berritzailea eta garestia dela.

Zer da erregai-pila?

Erregai-pila batera baten antzekoa da. Pilak metatutako erregaiarekin elektrizitatea sortzen du. Erregai-pilak eraginkortasun handia du eta hau da errekontza motorren aurrean duen abantaila nagusia.

Teknologiak aurrera egiten duen heinean, errazagoa izango da gure kotxeetan horrelako pilak ikustea?

Teknologiak aurrera egiten duen heinean potentzia dentsitate gehiago lortzen da. Duela hogeita hamar urte 100 kilowat ateratzeko, furgoneta baten atzealde osoa behar zen pila edo gailua gordetzeko. Egun, berriz, kaxa batean sartu daiteke eta kotxearen

beste zati bat gehiago da. Gaur egun, hidrogenoa erabiltzen duten kotxe gutxi dagoen arren, denborarekin arrunta-goa izango da.

Zeintzuk dira erregai-pilen aplikazioak?

Hiru arlo desberdin bereiztu ditzakegu. Batetik, garraioa; bestetik, aplikazio estazionarioa, hau da etxeetan edo industrian erabiltzeko energia estazionarioa, eta azkenik, aplikazio mugikorra.

Baina etxe batean edo enpresa batean erregai-pilen erabilera errentagarria al da?

Hidrogeno gutxi dago eta garestia da, baina kasu batzuetan bai errentagarria dela. Espainiako abere-hiltegi batean erabiltzen dute. Abere-hiltegi honek hondakin organiko asko sortzen ditu eta hauei tratamendu bat emanaz metanoan aberatsa den gas bat lortzen dute -gas naturalaren elementu aktiboa metanoa da-. Beraz, kasu hauetan bai errentagarria dela. Enpresak berak sortzen duelako energia. Etxeetan erregai-pila txiki bat erabiltzeko aukera aztertzen ari dira.

Noiz erabiliko dugu hidrogenoa, egun petrolio edo gas naturala erabiltzen dugun bezala?

Europako komisiok interes handia du Europak gai hauen alde agertzeko eta EEBB eta Japonen duten abantaila murrizteko. Helburu batzuk ezarri dituzte: 2015. urterako erakusgai izango diren proiektuak edukitzea, hau da, jendearentzat horrelako teknologia ikusgai egotea. Helburu nagusia, berriz, 2020. urterako ezarri dute, teknologia berri hauek ikusgai ezezik, eskuragarri egotea. Usurbilgo Lanbide Eskolan, dagoeneko, aplikazio bat ikusgai dago.

Duela urte batzuk mugikorrek edo ordenadoreekin gauza bera gertatu zen. Mugikor gutxi zeuden, garestiak eta oso handiak, egun, berriz, txikiak, merkeak eta hobeak daude. Erregai-pilekin gauza bera gertatzea espero dugu. Duela urte batzuk energia metatzeko edo gordetzeko pilak izugarri handiak ziren, oso garestiak eta ez ziren oso eraginkorrak. Etorkizunean, berriz, erregai-pilen eraginkortasuna askoz ere handiagoa izango da. •

“Energia berriztagarrietatik lortzen dugun elektrizitatea metatzeko ez dago soluzio errazik. Beraz, hidrogenoa energia berriztagarrien irregulartasunak gestionatzeko soluzio bat izan daiteke”

Janaria alferrik ez galtzeko aholkuak

■ Zaborretara botatzen den janaria gutxitzeko kanpaina burutzen ari da San Markos Mankomunitatea ■ 116.000 errezeta-liburuxka banatzen ari dira 10 udalerritan

TXINTXARRI

San Markos Mankomunitatea "Eltzekondoa garbituz" kanpaina burutzen ari da dagoen hamar udalerritan zaborretara botatzen den janari zati handia gutxitu eta jatekoari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko helburuarekin. Egia esan, bestela ere, krisi garaian ondo etorriko dira aholku hauek. Etxez etxe banatu den liburuxkan 22 errezeta jaso dira. Horietan janari hondarrak erabiliz otorduak prestatzeko aholkuak ematen dira.

San Markos Mankomunitateko arduradunen ustez "Janari gehiegi botatzen dugu zaborretara eta janaria ez da zaborra". Horregatik kanpaina bat egingo dute janari hondarretaz baliatzeko eta 116.000

errezeta-liburuxka banatuko ditu 10 udalerritan, "Eltzekondoa garbituz" izenburuarekin. Kontserbatzeko ohitura txarrak, behar baino gehiago erostea, txartutako edo iraungitako janaria edo elikagaiak... aipatzen dira jatekoak bota eta hondakinak ez erabiltzeko arrazoi gisa.

Liburuxka erabilgarria

Elikagaiak eta janari-hondarrak hobeto aprobetxatzeko eta hondakin gutxiago sortzeko aholkuak eta errezeta errazak ditu liburuxkak. Orrialde bakoitzean errezeta bat eta plateraren bukaerako itxuraren irudia sartu dira. Liburuxka erakargarria eta erabilgarria egitea izan da arduradunen helburua.

Liburuko informazioa lau ataletan banatuta dago: lehen ataletan daude liburuaren oina-



"Eltzekondoa Garbituz" janariari probetxu ateratzeko kanpainaren izena da.

ri diren 22 errezetak; hasiera-koak, bigarren platerak eta postreak. Azalpenetan argi agertzen da zer hondarrekin egin behar diren. "Erosteko unetik bertatik aurreikustea" izenburua duen ataletan, eros-

ketak egitean kontuan izan beharreko zenbait alderdi aipatzen dira, etxeetan hondakin gutxiago sortzeko. Hirugarren kapituluan ("Hozkailua zabaldu eta... hamaika sorpresatxo"), elikagaiak ahalik eta

gehien aprobetxatzeko hozkailuan eta despentsan dugunari arreta jartzeak duen garrantzia azaltzen da. Hamaika errezetak laguntzen digute eginkizun horretan. Azkenik, eta "Hondarrekin osagaiak moldatuz" izenburupean, elikagaien eta janari hondarrak ere aprobetxatu eta beste plater batzuetan erabiltzeko osagaiak egiteko aholkuak daude.

Guztira, aholkuz betetako 31 orrialde dira, janaria aprobetxatzeko ibilbidea hasteko lain; gero, persona bakoitzak nahi beste sakondu ahal izango du. Horrela, Mankomunitateak adierazi du hau hasiera besterik ez dela eta asko eskertuko duela errezetak bidaltzea helbide honetara: msanmarcos@udal.gipuzkoa.net

Errezetak egiteko, gure eskualdeko zenbait sukaldari ospetsuk hartu dute parte, Peio Garcia Amiano gastronomo entzutetsuaren koordinaziopean. Lanaren berezko izaera behar bezala ulertu du hark, eta hondarrak aprobetxatzearen kontzeptuari ondoren egokitzen zaizkion errezetak hautatu ditu eta errezetaz baliatzeko moduko eran argitaratu. •



Zuekin Egutero kanpainako saria Oiertzunerara joan da -

Okindegi eta bezero askok hartu du parte "Zuekin Egutero" kanpainen. 200.000 partaidetza-txartel baino gehiago jaso dira kanpainen parte hartu duten 316 establezimenduetan. Hauen artean egindako zozketan, Oiertzungo Lourdes Artola, bezeroa eta Garmendia okindegia izan dira irabazleak. Bakoitzak jasoko duen saria, Donostiako Arzak jatetxean bi laguntzako afaria izango da. "Zuekin Egutero" plastikozko poltsen erabilera murrizteko kanpaina da, hamar udalerritan burutzen ari da San Markos Mankomunitatea eta oihalezko poltsak darabiltzanari ematen zaio zozketan parte hartzeko txartela. Hurrengo zozketa abenduaren 4an izango da. •



Aholkuak irakurterrezak dira.

Patxi Jagoba Azpiroz Manterola

gipuzkoan zehar

paseo moduan egiteko

161 ibilbide lauak edo nahiko lauak

Urriak 29tik aurrera eskuragarri!

Noaua!n eta ohiko liburudendetan salgai

www.noaua.com

laguntzaileak: Ustezko Uda, Gipuzkoa

2008-11-07 • 734. zk. • txintxarri 05

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 8

10:30ean, Ostadar-Hondarribia (Infantil txikiak) Michelinen.
 12:00etan, Ostadar-Hondarribia (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinen.
 15:30ean, Lasarte-Oria Taldea-Segura (I. Jubenila) Michelinen.
 17:15ean, Ostadar-Danena (II. Erregionala) Michelinen.

11:30ean, Hondarribia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Ondartzeta, Hondarribin.
 15:30ean, Intxurre-Ostadar (I. Jubenila) Elorri, Alegin.
 17:45ean, Ordizia-Lasarte-Oria Taldea (II. Erregionala) Altamira, Ordizian.

Igandea 9

11:15ean, Ostadar-Anaitasuna (Alebinak) Michelinen.
 09:30ean, Real Union-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Gal, Irunen.
 16:00etan, Vasconia-Ostadar (Emakumezkoen Liga) Martutene, Donostian.

FUTBOL 8

Larunbata 8

12:00etan, San Patricio-Lasarte BHI (Infantilak, mutilak) San Patricio, Donostian.

FUTBOL 7

Igandea 9

10:00etan, Arkaitza -Niasa-Corpa (III. Maila) Beasainen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 8

HERRIKO TXAPELKETA
 09:10ean, Izkiriñ-Oria krist.
 10:00etan, Obelix-ISU Leihokak
 10:50ean, Ainhoa-Buenetxea
 14:10ean, Biyona-Epel
 15:00etan, Oria Txiki-Viña del Mar

15:50ean, Mayi-Tragoxka
 16:40ean, Lurra XXI-Izarra

Igandea 9

10:15ean, Aldaz H.K.-Club Deportivo Alegria (Euskal Liga) Kiroldegian.
 12:00etan, Zarautz-ISU leihokak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Antoniano kiroldegian, Zarautz.

HERRIKO TXAPELKETA

09:10ean, IOB H.K.-Katanga
 10:00etan, Morrison-Siglo 20
 10:50ean, Danena-Jordi
 11:40ean, Ilargi-Okela

PILOTA

Larunbata 8

12:00etan, Intza-Zumaia (Eskuz banaka II. Seniorra) Michelinen.
 12:00etan, Intza-Eibar (Eskuz banaka III. Seniorra) Michelinen.
 16:00etan, Intza 2-Oiarpe 8 (Eskuz banaka infantila 2. urtea) Michelinen.
 16:00etan, Intza 2-Intza 4 (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.

16:00etan, Intza 1-Intza 3 (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.
 16:00etan, Gazteleku 1-Intza (Eskuz banaka alebinak 2. urtea) Añorgako frontoian.

18:00etan, Añorga-Intza (Eskuz banaka I. Jubenila) Añorgako frontoian.
 18:30etan, Oiarpe 7-Intza 1 (Eskuz banaka infantila 2. urtea) Hernani.

SASKIBALOA

Larunbata 8

16:00etan, Ainhoa-Gazteluzar (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian.

JUDO

Larunbata 8

11:00etan, LOKEko infantil mailako judokek XVII. Ama Gualupekoa "Hondarribia Hiria" lehiaketa internazionalen parte hartuko dute.

Emakumezkoen kirola bultzatzeko asmoz



Asteartean sinatu ziren lankidetzako hitzarmenak Lasarte-Oriako udala eta herriko kirol elkarten artean.

Kirol federatuen emakumearen partehartzea bultzatzeko asmoarekin, azaroaren 4an, lankidetzako hitzarmenak sinatu ziren Lasarte-Oriako Udala eta herriko kirol elkarten artean.

Lasarte-Oria Kirol Elkarteak (Judoko eta Atletismoko atalak), Ostadar Kirol Fundazioa (Futbola) eta Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldearekin sinatu dira hitzarmenak. Bertan, Ana Urchuegia alkatea, Jesus Zaballos Udaleko Kirol Batzordeko Zinegotzia, Jesus Diez Lasarte-Oria Kirol Elkartearen presidentea, Itziar Carrasco Ostadar K.F.ren ordezkaria eta Puy Solano Buruntzaldea Igeriketa eta

Kirol Taldearen ordezkaria izan ziren. Emakumeek kirol federatuen parte-hartze eskasa dutela ikusirik, herriko Udalak laguntza proiektu bat garatzea erabaki zuen emakumea positiboki diskriminatze aldera kirol federatuen ekiterakoan. Horretarako sinatu dira lankidetzako hitzarmenak herriko kirol elkarteekin. Hitzarmenetan, plan honetan finkatutako helburua betetzeko alderdiek bere gain hartzen dituzten betebeharrak jasotzen dira.

Lasarte-Oriako Udalak kirol-elkarteei ematen dizkien laguntzak kirol-jardueraren federatuen dabilzan emakumeen parte-hartzea bultzatuko duten egiturak

sustatzeko helburuekin bideratuko dira, beti ere egitura hauen proiektzioa eta interesa bat baldin badator Udalaren kirol-politikarekin.

Honek urtean 18.030,36 eurotako laguntza suposatuko zuela esan zuten, baina elkarte bakoitzari ematen dioten diruari begiratuta kopurua txikiago da, guztira 14.377,3 euroko laguntza emango dute.

Honela, Ostadarren futebolearen dabilzan emakumeentzat 5.740,20 euro, Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeko neskeentzat 5.028,10 euro eta LOKEko judokoen 1.904 euro eta atletismokoentzat 1.705 zuzenduko dira. •

2008ko Kirol Elkarteentzako diru-laguntzak

Kiroletako oharrak

Aerogazte

Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urteik beharoko neska-mutilentzat. Gaztetxoek gogoko duten jarduerara alai eta dibertigarria da aerobica. Erritmoren eta musika-kadentzia bidez, giza-harremanak eta osasuna garrantzen eta hobetzen dituzte. Begirale tituludun eta adituak koordinatu eta animatzen dituz, koreografia ugari, musika eguneratu eta dibertigarri. Asmoa ondo pasatzea, eta ahalaren handiegirik gabe, ariketa fisiko atsegina egitea

Aquarobic

Modalitate fisiko berri honen eskolak Udak Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia egitean datza, musikaz eta ikasleen beharretara egokitutako ariketaz lagundua. Edozein adin, genero eta mailatako pertsonen ur-ingurune batean egin dezaketen jarduerak da, igerileku ez oso sakonengan. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daiteke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kirolekin.

Urtero egiten den moduan Lasarte-Oriako Kirolen Udak Zerbitzuak, Kirol Elkarteek 2008ko diru-laguntza arruntan eskaerak aurkezteko epea ireki du. Eskaerak, Udalaren Erregistroan aurkeztu daitezke, goizez azaroaren 15a bitartean.

Aurtengoan Lasarte-Oriako Udalak Kirol Elkarteentzako laguntza hauen banaketa zuzenduko dituzten oinarriak ezarri ditu kiroleko klub edo entitatei zuzenduriko diru-laguntzak erregulatzeko helburuekin.

Irizpideak

Aurtengoan kirol-entitateek eta kirol jardueraren puntualek urtaldirako onetsita duten kopuruaren %50ekoa izango da laguntza. Baldintza minimoak betetzen dituztenek kopuruaren %25a jasoko dute, denek kopuru berdina. Gainerako %25a elkarteek balorazio baten arabera jasotzen duten puntuaketaekin banatuko da, denboraldian dauden federazioetako kirol-lizentziak, lehiaketa federatuen dauden kirol-modalitateak, bazkide kopurua, bazkide

edo kirolariak ordaintzen duten kuota eta kirol-entitatearen gastua finantzatzeko iturri pribatuetatik datorren portzentaiaren arabera.

Diru-laguntza hauek etekin-asmorik gabeko kirol-entitateei emango zaizkie, beren egiturak indartzeko eta garatzeko. Udalaren Kirol Zerbitzuaren aurrekontuak horretarako bidea ematen duen heinean laguntzak urtero banatuko dira, betiere, duten proiektioa eta interesagatik, Lasarte-Oriako Udalaren kirol-politikarekin bat baldin badator. •

Egunero

Erakusketa

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak daude ikusgai Jalgin.



Ostirala 7

Andere Lipus & Karabanaren "Hala mintzatu zan Zappatrusta", Jalgin eskaini beharreko obra
BERTAN BEHERA geratu da.

Larunbata, 8

Antzerkia

LA BALDUFA teatre taldeak *Baserriko saltsa* antzezlan eskainiko du haurrentzat. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Igandea, 9


Zinea

KUNGFU PANDA haurrentzako filma. Kulturetxean, 17:00etan. Sarrera, 3 euro.

Asteartea, 11

Ipuin-kontalaria

BEATRIZ EGIZABALEK ipuin zoragarriak kontatuko ditu 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.



Kontzertua kulturetxeko kafetegian

ROUGE talde donostiarraren kontzertua, Xpression eta Gazte-riak sinatutako akordioaren baitan. Talde gazte honek rock freskoa lantzen du, 70 hamarkadari arreta berezia eskainiz. Radiohead, Rolling Stones, The Who, Coldplay, Stone Roses... bezalako taldeak bertsoniatzen dituzte gainera.

GAUR KULTURETXEKO KAFETEGIAN
20:00ETAN, EUSKARAZ

Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan. EUSKARAZ

Asteazkena 12

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txiki-entzatzat. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan.

Diaporama

OÑATZ TALDEAK Oñatiko herri-ara, Araotz auzora, eta Orkatzamendi gailurrera udaberriaren egindako irteerako irudiak eskainiko dituzte urtero antolatzen diren *Irudiekin munduan barrena* zikloaren barruan. Jalgi kafe-antzikian, 21:00etatik aurrera. EUSKARAZ

Oharrak

Argazki kamara digital bat galdu da

Argazki kamara digital bat galdu zen Kroseko egunean. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sari-tuko da.

Maratoian galdutako zenbait gauzak

Euskararen VII. Maratoiko asteburuan, urriaren 18 eta 19an, zenbait gauza azaldu ziren plazan eta Ttakunen daude, motxila bat, arropa... Norbaitek zerbait galdu bazuen asteburu horretan pasa dadila Ttakuneko bulegotik lehen bailehen, mesedez (Geltoki kalea 4, 943 371448).

Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartek, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen

Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurokoa da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkartetako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkartek, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake asteleheneetik ostiralera 18:00aurrera abenduaren 7a arte, hau barne.

Udako Txokotako argazkiak

Udako txokotan ibili diren haurrei CDak banatu zaizkie udako argazkiekin. Norbaitek oraindik jaso gabe badu CD, horretarako azken eguna gaur izango da. Gogoratu Ola kale 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar dela argazkiekin osatutako CDA jasotzera. Ordutegia: arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxari@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Eskutitzak

Hizkuntza zapalkuntza agerian utzi eta politikak arrotzak agerian utziko dira gaurtik aurrera eta igandera bitarte, EHEk deituriko Ezabaketa Astearen karira

Hizkuntza gatazka puripurian ematen den honetan, hizkuntza zapalduaren, euskararen aldeko ekimenek geroz eta indar gehiago hartzen ari dira. Urtez urte EHEK deiturik burutu izan den Ezabaketa Astea iritsi da gurera, ekimen batekin eman zaiola hasiera aste honi; hizkuntza zapalkuntzaren adibideak agerian utzi eta hauek posible egiten dituzten hizkuntza politikak arrotzak salatzeko uinea dugu.

Izan ere, euskaraz normaltasunez bizitzea, ez da posible. Eremuz eremu topatu ditzakegu euskararen bazterketa eragiten duten adibideak, izan publiko edo pribatuan. Kaletik edota errepidetik goazela ere, gure hizkuntza eskubideen zapalkuntzaren adibideak topa ditzakegu; paisaia linguistikoari erreparatu besterik ez dugu. Ez dugu aurkituko, oro har, euskara hutsean idatziriko seinalerik Euskal Herri osoan; alabaina, erdara hutsean idatziriko seinaleak maiz kausituko ditugu. Eta hori larritzekoa da, benetan.

Egoera hau ahalbidetzen duten errudunak egungo hizkuntza politikak eta hauek aurrera eramaten dituztenak dira. Politika horiekin aurrera eramaten dituzten ideia nagusiekin, elebitasunean eta euskararen marjinazioan oinarritutako ideiekin, euskaldunak bereizkeriara eramaten gaituzte. Euskara beti irudikatu dute bigarren mailako eta ondorioz, baita honen erabiltzaile izan diren, garen eta izango dire-

nak ere; beti izan gara bigarren mailako herritar gure herrian bertan, beti izan gara baztertuak euskararena beharko lukeen herrian. Eta egoera hau aldatu beharra dago.

Bada garaia euskarari lehentasuna emango dioten politikak garatzen hasteko. Euskarak lehentasunezko izateaz gainera, guztiak ezagutu beharrekoa behar du izan; eta hori egoera bakar batek ahalbidetu dezake: Euskal Herriko berezko hizkuntza izendatu eta lurralde osoan bere ofizialtasuna aitortzen denean. Horrela, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko diren errealitatearen aurrean aurkituko gara: gure herrian euskaraz biziz, Euskal Herri euskaldunaren eskenatikian.

Euskal Herri euskaldunaren gainean izateko ardura guztiok dugu. Herritarrek izan behar gara bide horretan akuilu, eta lehenbailehen; galbidera eramango gaituen egoera luzatu beharrean, eraikuntza lanari ekiteko garaia da! Eta aukera ezin hobea eskaintzen digu aste honek; hizkuntza zapaltzaileen aurrean, euskararen lehentasunezko izaera erakustera joango gara aste honetan zehar herri zein eskualdeetan antolatutak diren ekimen ezberdinetan.

Euskal Herri euskalduna eraiki!
Euskara ofiziala Euskal Herri osoan!

Euskal Herrian Euskaraz



Euskal jantzi tradizionalak egiteko aukera egongo da Ttakunen

■ Azaroa eta abendurako, Erribera kaleko Ttakunen lokal zaharrean, josten ikasteko ikastaroa antolatuko da norberak bere euskal jantzi tradizionala egiten ikasi dezan.

TXINTXARRI

Iaz heldu zion gaiari Ttakunek eta aurten ikasitako praktikan jartzeko asmoarekin josten ikasteko ikastaroa antolatu du elkarteak. Euskal jantzi tradizionalak nolakoak diren ikasi eta gero nahi duenak berea egiteko aukera izango du.

Ekimen desberdinen bitartez iaz jantzien nolokotasuna ikasi genuen. Olatz Razkin, urteetan Erketz Dantza Taldeko jantzien arduraduna izan denaren laguntzarekin, liburuak txiki bat plazaratu zen benetako euskal jantzi tradizionala nolakoak zen eta zergatik zen horrela azalduz. Bertan bitxikeria asko ezagutu ahal izan genituen, hala nola, ezkontutako emakumeek zapi zuria janzen zutela eta ezkongabeek estanpatua. Baina xehetasun txikiez gain benetako jantziak nolakoak ziren azaltzen zituen liburuak. Horretaz gain argazki zaharren erakusketa bat ere egin zen Jalgin eta jendarteko agerpen bat jantzi desberdinek zuzenean ikusteko, horrela benetako estilo tradizionala zein zen ezagutzeko.

Hori jakinda, jendeari bere jantzi propioa egitea gustatuko litzaiokeela pentsatu eta gero sortu zen ikastaroa antolatzearen ideia. Horrelako

jantziak garestiak izaten dira baina etxean eginez gero xoxa batzuk aurreztu daitezke eta gainera norberari egokitu-tako jantziarekin aterata.

Zaletasunak euskaraz

Ione Artola eta Mailu Arruti izango dira ikastaroaren gidariak Erribera kaleko lehenengoan dagoen lokalean. Han josteko materiala bildu dute neurriak hartu, moztu eta josteko aukera egon dadin eta proposatutakoa gonak, azpiko gonak, txalekoak, zapiak, mantalak eta gizonezkoentzat txalekoak egitea da. Batzuk josten duten bitartean besteek mantalak eta zapiak egiteko bainika ikastaroa egingo dute han bertan.

Josten ikasteaz gain, euskaraz eta lagun artean arratsalde pasatzeko aukera polita izango da. Horregatik, euskara pixka bat ahaztuta dutenek, erraztasunik ez dutenek eta praktikan jarri nahi duten horiek lekua izango dute bertan.

Izen ematea

Ikastaroan parte hartu nahi izanez gero Ttakunen bertan eman dezakezue izena. Ikastaroa 25 euroren trukean izango da, 22 euro Ttakuneko bazkide direnentzat. Gehienez 12 pertsonentzako lekua egongo da eroso ikasi eta denentzako lekua egon



Ione Artola eta Mailu Arruti ikastaroaren hasteko prestaketa lanetan dabilta.

dadin. Ikastaroen egunak astearte eta ostegunetan izango dira azaroaren 18an hasi eta abenduaren 18ra arte. Orduetgia oraindik finkatzeke dago, jende gehien biltzen duen tartea izango da aurrera aterako dena. Hau da, goizez ala arratsalde egiteko erabakia jendearen nahien arabera erabakiko da.

Goizez 10:00etatik 12:00ak bitarte izango litzateke eta arratsalde 15:00etatik 17:00etara.

Biltegia

Hau guztiaz gain, arropa jaso nahi da momentu berezietan erabili ahal izateko, parodian, antzerki eskolan, maratoian edo umeen ekitaldietarako

adibidez. Biltegi bat osatu nahi da behar denerako materiala egon dadin. Arropak, oinetakoak, txapelak, pelukak eta horrelakoak bildu nahi dira sailkatu eta biltegi dotore bat osatzeko. Beraz, behar ez dituzuen arropa zaharrak, antzerkirako egokiak edo deigarriak direnak Ttakunera ekartzeko deia egiten dute. •

IKERLANAK IDAZTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA / 2008

Euskal Herriko eta, bereziki, Beterri-Aiztondo eskualdeko historia, gizarte, kultura eta hizkuntzan ikerkizun eta ezagukizun diren gaiak landu eta hausnartzeko eta horiek idatzizko lanen bidez aditzera emateko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko dei egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, Jarraian datoenak direlarik deialdiaren xehetasunak batzuk:

LEHENEN - Deialdiaren helburua

Ikertuko diren gaien aukera bi ataletan banatzen da:

1. Norberak hauta eta epaimahaiari aurkez dizezkoan ikerkizuna, beti ere goian aipaturiko alorretakoa izanik zabalkunde eta irakurtzaletasun irizpideei erantzungo diena.

2. Ondoko gai hauekikoak:

- **Fraisoro: utzitako haurren trajedia.**
- **Ezkondutako emakumeen harremanak. Bekatuaren grina?**
- **Zeferino Ansa: alkate moderno baten itzala.**
- **Amasa-Villabona: izena duenak izana?**

Saiakera lan horien luzera, 2.100 karaktere inguruko orrika kontaturik, gutxienez 100 orrikoa izango da.

BIGARRENA - Saiakera lanen ezaugarriak

Saiakera lanak euskaraz landu eta idatzizkoak izango dira. Horrenbestez, ezin izango da itzulpenik aurkeztu eta epaimahaiari gutxienezko idatzera mailakotzat irizten ez dituen lanak atzera botako ditu.

HIRUGARRENA - Dirulaguntzak

Epaimahaiak bi dirulaguntza onartuko ditu, biak, gehienez ere, 2.500 eurokoak, baina dirulaguntza bi horien azken kopurua ez du erabakiko ikerketa lana eskeratu eta aztertu bitartean. Beraz, dirulaguntzak bi alditan ordainduko dira: Nolanahi ere, epaimahaiak 5.000 € kopuruko dirulaguntza bakar bat eman ahal izango du, aipatu biak bat eginda.

BOSTGARRENA - Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko azaroaren 28an amaituko da, eta honako helbidera eraman behar dira edota bertara posta bidez bidali:

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Ikerlan deialdia
Bulandegi bidea, 23-behea. Karidade-enea
20.150 ZIZURKIL

ZAZPIGARRENA - Saiakera lana aurkezteko epea

Dirulaguntza jasotzen duen ikerlariak 2009ko ekainaren 30a baino lehen eskuratuko beharko dio lana epaimahaiari, hala paperean inprimaturik nola eustarri informatikoan ere.

Eskura itzazu deialdia arautzen duten oinarrien eskuorria 943 696 450 edo 943 300 733 zerbakiara deituta edo mezu bidez beterrri@aiurri.com

Antolatzailerak

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Babesleak

